

PROPOSAMENAK



Kanpainak:

1. Sentsibilizazio kanpainak egin herritarrek ohartarazteko. Adibidez, gure erosketetan plastikorik eta ontzirik ez duten produktuak erostera bultzatzeko.

Horretarako:

- Udaletxeak pegatinak egin ditzake publizitatea ez dela nahi esanez eta etxeetan banatu.
- Herriko etxe guztietara gidatxo bat bidali "kontsumo arduratsuaren" inguruan informatuz.
- Zaborra ondo sailkatzeko zaborrontziak banatu udal egoitzetan eta etxeetan.

Edukiontzia:

2. Olio birziklatzeko eduki ontziak jartzea herrian.
3. Pilak eta mobilak birziklatzeko eduki ontziak jarri herrian.
4. Udalarari eskatuko genioke paperaren eduki ontzia leku egokiago batean kokatzea (eskolatik gertuago, eta batez ere, bidea gurutzatu beharrik ez izatea) ekintza arriskutsu bat ez dadin bihurtu.
5. Zakarrontzi kopurua gehitu eta hondatuta daudenen mantenua egin.
6. Zakarrontziak sarri-sarri hustu.


Udal instalazioetan:

7. Eguzki plakak jarri.
8. Produktuak erostean ekologikoak eta birziklatuak erosi, adibidez papera.
9. Egoitzetako tenperatura 20 Cº-tan jarri.
10. Farolei txapelak jarri.
11. Aurrezteko iturriak jarri.
12. Argi naturala erabili.



Bestelakoak:


13. Dendetan hainbeste bilduki dituen produktuak saltzeagatik dendariari zerga bat jarri.
14. Herri txikietan produktu natural gehiago egotea bultzatu eta laguntzak eman bertako produktuak saltzen dituzten denda txikiei.
15. Bilduki gutxiago dauzkaten produktuak saltzea.
16. Publizitatearen banaketa arautzea. Gai hori aztertzean ikusi dugu herriko gune guztietara ez dela iristen eta beharrezkoa ikusten dugu mundu guztiari banatzea.



DEBABOENA ^{Eskolako} Agenda 21

2007 - 2008 IKASTURTEA

ARETXABALETA



Azken urteetan, Tokiko Agenda 21aren baitan, Aretxabaletako Kurtzebarri ikastetxea osatzen dugunok (ikasle, irakasle, guraso, langile...) gure herrian ingurumenaren aldeko jarrerak, ekintzak... lantzen aritu gara Eskola Agenda 21 programaren bidez.

Urtero bezala gai nagusi baten inguruan lan egin dugu kurtsoan zehar, eta aurtengo gaia **KONTSUMO JASANGARRIA** izan da. Egindako lanarekin gaur egun konturatu gabe ere gure eguneroko bizitza kontsumoarekin lotuta dagoela konturatu gara.

Aretxabaletako gazteok gure inguruneaz kezkatzen garela jakinarazi nahi diogu herriari, eta gure eskaera, proposamen eta kezkek azaltzeko aukera ezin hobea da programa hau.

Gaia era askotan aztertu dugu.

IKASTETXE BARRUKO LANAK

- Alde batetik, ikastetxe mailan zein kontsumo jarrera ditugun aztertu dugu; inkestak eta azterketak egin dira bertako ondorioak ateratzeko.
- Azterketa hauen emaitzen adibide moduan gure artean testu liburuak trukatzeko eta papera bi aldetatik erabiltzeko ohitura dugun arren oraindik paper edo produktu birziklatuak, erabilpen luzeko ontziak... erabiltzera ez gara iritsi ikusi dugu.
- Hala ere gela guztietan papera birziklatzeko ontzi berezi bat dago, erabilitako folioak beste eginkizun batzuetarako aprobetxatzen dira (eskulanak, eragiketak...) astero gelan bildutako papera edukiontzira eramaten da, baina argi dago paper gehiegi gastatzen dugula.

- Bestetik, gaur egun gure ikasgaietan kontsumoari ematen zaion trataera aztertu dugu. Eta kontsumoaren inguruan hurrengo lan eta ikasgaiak eman ditugu:
 - ♦ Eskolan antolatu zen kontsumoaren astean parte hartu genuen eta gabon sasoian geundenez, zintzilikarioak, apaingarriak, opari kaxak... material birziklatuarekin egin genituen eta truke azokan parte hartu genuen.
 - ♦ Munduan dauden desberdintasunak ikusteko horma-irudiak egin genituen: Janariena, jostailuena, tresneria (DVD, MP3, plasmako TB...). Eta konturatu ginen gauza guzti horiek ez direla beharrezkoak.
 - ♦ Merkatuan aurki ditzakegun produktu batzuk ekoizteko zein baliabide behar diren eta ea baliabide horiek berriztagarriak edo berriztaezinak diren ikusi dugu.
 - ♦ Paperaren edo beiraren birziklaiak dakartzan ingurumen-onurak.
 - ♦ Publizitateak kontsumoan duen eragina.
 - ♦ Kontsumitzaileen irizpideak, kontsumoa eta kontsumismoa eta kontsumitzaileen defendatzeko tresnak.
- Ikasitakoak gauza larregi daukagula eta aldiz beste toki batzuetakoak oso gutxi daukatela konturatzeko balio izan digu eta ingurumena zaintzea garrantzitsua dela guretzako eta gure ondoren datozenentzako.



HERRI MAILAKO DIAGNOSTIKOA



Azkenik, herri mailako kudeaketa izan dugu aztergai. Herritarrok zein kontsumo ohitura daukagu?

Herriko diagnostikoa egiteko eskolatik irten eta behaketak, galdeketak eta hausnarketak egitera bultzatzen gintuzten fitxa batzuk erabili ditugu.

Irteera bezala kurtso desberdinetatik hurrengoetara joan gara:

- Rezikleta edukiontzi zurietan jasotzen den arroparekin zer egiten den ikusteko.
- "Hondakinak. Amesgaiztorik ez" erakusketa
- Donostiako Emaus fundazioa bisitatu ditugu. Gauzak birziklatzea zein garrantzitsua den ikasi dugu.
- Kontsumo tailerrak egin ditugu eta etiketatzea aztertu dugu.
- Sasieta zabortegei kontrolatua bisitatu dugu eta hondakinen arazo ezagutzeko aukera izan dugu.
- Lastur auzoko Goikola baserria bisitatu genuen eta han baserriko bizimodua eta ekoizpenak ezagutu genituen.
- Arantzazuko Gomiztegi baserrian egon ginen eta hango artzain eskolan gaztaren egite prozesuan parte hartu genuen.

Bestetik taldean fitxa batzuen bidez egin genuen herriko diagnostikoa:

- Txikienez hamaiketakoaren eta etxeko jostailuen azterketa egin genuen.
- Kaleetan txikleen arazoa aztertu genuen.
- Handiagoek goxoki kontsumoa aztertu zuten.
- Kontsumoaren inguruan inkesta bat bete genuen: produktuak erosten ditugunean non eta nolako enbasea izan behar duten konturatu ginen eta birzikla beharrez ere jabetu ginen. Gai hau dela eta bi orduko saio berezi bat izan genuen Udalako Ingurumen Eskolako Aditu batekin.
- Etxera iristen zaigun publizitatearen behatu genuen.
- Denda desberdinen arteko konparaketa egin genuen. Azoka eta hipermerkatuak askoz merkeagoak dira.
- Helduenak udal instalazioetan egon gara hondakinen sailkapena eta kontsumo ohiturak aztertzeko.
- Tarta ekologikoa egin dugu.

FOROA

Bukatzeke lan hauek burutu ostean jasotako informazioarekin herriaren balorazio bat egin genuen ideia orokorrak eta proposamen zehatzak biltzeko. Ikusitakoa ikusita gure kabuz alda dezakeguna aldatzeko konpromisoak hartu ditugu. Eta udaletxeari dagozkion gaiak aurrera eramateko berriz, udalari zuzenduriko hainbat proposamen sortu ditugu.

Bi ikastetxeen lana bildu eta guztiok batera lan egiteko Eskolen arteko foroa ospatu genuen. Eta jarraian bildutakoa da bertan adostu genuena:

KONPROMISOAK

1. Sortzen dugun zaborra (txikleak, plastikoak, albal papera...) lurrera bota beharrean zakarrontzira botako dugu.
2. Gelako materiala ondo zainduko dugu, alferrik galdu gabe.
3. Papera aprobetxatuko dugu, bi aldetatik erabiliaz, gastatzen dugun kopurua gutxitzeko eta erabilitakoa birziklatuko dugu bolarik egin gabe. Eta saiatuko gara paper birziklatua erosten.
4. Erosketak egiterakoan kontsumo ohitura egokiak izaten jarraituko dutu eta beharrezkoa bakarrik erosiko dugu.
5. Erosketak egiterakoan saiatu gurdia erabiltzen edo norberaren poltsa eramaten, plastikozko poltsen erabilera gutxitzeko.
6. Plastiko asko dituzten produktuak saiatuko gara ez erosten.
7. Garbitasunerako ahalik eta produktu ekologikoenak erabiliko ditugu.
8. Olioia birziklatzera eramango dugu.
9. Saiatuko gara papera erabiltzen plastikoa edo "albal"ren ordez.
10. Argiak eta ordenadoreak itzaliko ditugu behar ez direnean.
11. Zaborra sailkatuko dugu eta klinexak zabor kutxara botako ditugu.
12. Etxeko erosketak egiteko garaian produktu familiarrik aukeratuz gero, merkeagoa izateaz gain, askoz ere hondakin gutxiago sortuko dugu.
13. Zenbait erosketa egiteko orduan bigarren eskuko dendetara jo beharko genuke.
14. Erosketara joan aurretik behar dugunarekin zerrenda eginez gero, eskaintza tentagarriak saihestu eta benetan behar duguna erosiko dugu.

